

Danele Sarriugarte idazlea eta *Sexo, Intimidación y redes sociales* izeneko solasaldia izango dira bihar, asteazkena, CROSSOVER festibalean

Bihar, apirilak 24, asteazkena, Koldo Mitxelena Kulturunean (Santa Teresa komentua) CROSSOVER festibala izango da *Baipasaren* «Zer ikusi» atalaren zuzeneko grabazioarekin, 17:00etatik aurrera. **Olaia Urutiaga** aurkezleak eta **Gaizka Izagirre, Eider Saez** eta **Ibon Zabala** ohiko kolaboratzaileek dilema bati egingo diote aurre: «Gure garaiko kultura ondarea suntsituko lukeen hondamendi batetik telesail gutxi batzuk bakarrik salbatu ahal izango bazenitu, zein izango lirateke?».

18:30ean, **Ylenia Benitok Danele Sarriugarte** idazlea elkarrizketatuko du «Ikusle gonbidatua» atalean, telesail formatuari buruz, gustu pertsonalei buruz eta oroimenean arrastoa utzi dioten telesailari buruz duen iritzia aztertzeko. Literaturaren eta telesailen arteko lotura ere landuko da, egokitzapenek urteko estreinaldien ehuneko handi bat hartzen dutela kontuan harturik.

20:00etan, Atresplayer Premiumen eskutik, **Nahia Sillero** *Irabazi arte* filmaren aktore protagonistak solasaldi bat moderatuko du. Solasaldi horretan, **Diego Rey** aktoreak parte hartuko du, *Red Flags* telesaileko protagonista bera, eta **Lucía Delgado** eta **Tábata Cerezo** izango ditu lagun, telesailean parte hartu duten bi intimitate koordinatzaileak. Azken horiek filmatzeko espazio seguru bat sortzeaz arduratu dira, emakumezko eta gizonezko aktore protagonistak seguru senti zitezten filmatu zituzten sexu eszena ugarietan. Intimitate koordinatzaileek konfiantza, segurtasuna eta babes sare bat eskaintzen diete interpretazioan zein produkzioan parte hartzen dutenei, sekuentzia intimoak grabatzearen ondorioz sor daitezkeen arriskuak arintzeko.

Komunikabideekin elkarrizketak egiteko prestasuna:

LUCÍA DELGADO asteazkenean iritsiko da Donostiara, 13:00etan.

DIEGO REY asteazkenean iritsiko da Donostiara, 09:00etan.

DANELE SARRIUGARTE Donostian bizi da.